Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

6258

EBAZPENA, 2010eko abenduaren 1ekoa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena, laguntzetarako diru-baliabideak gehitu direla argitara ematen duena. Atzerrian sustatu eta ezartzeko jarduerei laguntzeko 2010eko ekitaldiko Prointer Programa garatzen duen 2010eko otsailaren 24ko Aginduan ezarritakoaren esparruan esleitu ziren laguntzok.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko otsailaren 24ko Aginduak euskal enpresak atzerrian sustatzeko eta ezartzeko jardueretan laguntzeko Prointer programa arautzen du.

Agindu horretako 17. artikuluak dioenaren arabera, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordeak 2010eko otsailaren 25eko Ebazpena eman zuen, eta horren bidez, Prointer Programaren esparruaren barruan, atzerrian sustatu eta ezartzeko jarduerei laguntzak emateko 2010eko ekitaldirako deialdia argitaratu zen.

Prointer Programaren barruan egindako eskabidekopuru osoa kontuan hartuta, eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko beste laguntza-programa batzuen aurrekontu-baliabideen arabera, bidezkoa da programan 2010eko ekitaldirako ezarritako laguntzetarako funtsak handitzea.

Adierazitakoagatik, 2007ko uztailaren 5eko ebazpenaren 1. artikuluan eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Prointer Programaren laguntzak jasotzeko 2010eko otsailaren 25eko Ebazpenean ezarritako 2010eko ekitaldiko diru-baliabideak 11.047.988 euroan gehitzea, betiere, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren beste laguntza-programa batzuk gauzatzerakoan agortu gabe geratu diren aurrekontu-baliabideen arabera. Atzerrian sustatu eta ezartzeko jarduerei laguntzeko deialdiari buruzkoa da 2010eko otsailaren 25eko Ebazpena.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

6258

RESOLUCIÓN de 1 de diciembre de 2010, del Viceconsejero de Innovación y Tecnología, por la que se hace público el aumento de los recursos destinados para la concesión de ayudas, dentro del marco previsto por la Orden de 24 de febrero de 2010, por la que se desarrolla el Programa Prointer, de ayudas a las acciones de promoción y de implantación en el exterior, para el ejercicio 2010.

La Orden de 24 de febrero de 2010, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio, y Turismo regula el Programa Prointer, de ayudas a las acciones de promoción y de implantación en el exterior.

De conformidad a lo establecido en el artículo 17 de la citada Orden, el Viceconsejero de Innovación y Tecnología dictó resolución, el 25 de febrero de 2010, publicando la convocatoria, para el ejercicio 2010, de concesión de a las acciones de promoción y de implantación en el exterior, en el marco del Programa Prointer.

Teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas dentro del Programa Prointer, y en función de las disponibilidades presupuestarias de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, procede realizar un incremento de los fondos destinados a las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2010.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 1 de la Resolución de 5 de julio de 2007 de referencia, en relación con lo dispuesto en el Decreto 514/2009, de 22 de septiembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo

RESUELVO:

Primero.– Incrementar hasta un total de 11.047.988 euros los recursos económicos previstos para el ejercicio 2010 en la Resolución de 25 de febrero de 2010, de convocatoria de ayudas en el marco de Programa Prointer, de ayudas a las acciones de promoción y de implantación en el exterior, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu dakioke Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 1a.

Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GOICOLEA RUIGÓMEZ.

Segundo.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de diciembre de 2010.

El Viceconsejero de Innovación y Tecnología,
JUAN IGNACIO GOICOLEA RUIGÓMEZ.